

Ardiak eta belarra

Behin, artzain batek artaldea alhagira jalgi zuen, biziki belar ona zen leku batera, eta ardiei erran:

- Bazka ona duzue egun; ase ondoan sar etxera.
- Iluntzean heldu ziren ardiak etxera eta nagusiak galdetu zien:
 - Aski jan duzuea?
 - Batere ez dugu jan, ihardetsi zioten ardiek.
 - Zer, bada?
 - Jaten hasten ginen aldi guziz, "aitzina eta goxoago, aitzina eta goxoago", erraiten zigun belarrak, eta... egun guzian ibili eta ibili, ez dugu deus ere jan.

- Ez zarete tonto txarrak, erran zien artzainak, beste aldian "hemen berean goxo" erantzun eta han berean geldi zaitezte aski jan arte.

Hurrengo egunean, joan ziren berriz ere ardiak bazka leku on hartara eta belarra hola hasi zitzaien:

- Aitzina eta goxoago, aitzina eta goxoago...
- Baina oraingoan ardiek ihardetsi zuten:
 - Hemen berean goxo, hemen berean goxo...

Iluntze hartan, aserik itzuli ziren arditegira.

Garai hartan, gauza guziek mintzatzen bazekiten: belarrak, sasiak, arboleak eta animaliek ere bai. Salbu goroldioak. Beste guziak bildu ziren, baizik eta goroldioari hitzegiten erakutsi behar ziotela. Bizkitartean, erakusten hasi zirenean, denak muturrik gelditu omen ziren. Horregatik, landareak, ez eta animaliak ere, ez dira gehiago mintzatzen.

Halere, batzuek diote ardiak eta belarrak oraino mintzo direla elkarrekin. Ardiak alhatzera ateratzen direnean, belarrak erraiten omen die:

- Aitzina eta goxoago, aitzina eta goxoago...
- Ardiak, han-hemenka ibili eta, azkenean "beee-beee!" eginez lekuan berean gelditzen dira.

Beee-beeee... horrek "hemen berean goxo, hemen berean goxo" erran nahi omen du.

goroldioa : landare tipi bat, gehienetan berdea, lurraren, enborren, harrien gainean hazten dena.

Joxe ARRATIBEL, *Kontu zaharrak*, Erein,
IKASek egokitua.

❶ ULERMEN GALDEAK

- Zergatik belarrak erraiten die ardiei "aitzina eta goxoago"?
- Noiz muturrik gelditu ziren gauzak?
- Denak muturrik gelditu ote ziren?
- "Bee..." diotenean ardiek, zer erran nahi dute?

❷ JOSKERA

- ▶ *Ardiak alhatzera ateratzen direnean, belarrak erraiten omen die...* erranaldian denborazko perpausa bada. Eskuin aldean, perpaus horren antzeko hiru badira; bat, aldiz, makur da. Zein dira zuzen? zein makur?

Ardiak alhatzera ateratzen dira eta...

Ardiak alhatzera ateratzen direlarik...

Ardiak alhatzera ateratzen direlako...

Ardiak alhatzera ateratzen direnetik...

Ardiak alhatzera ateratzen direnean...

❸ BERRIZ IRAKUR

Hona testuko erranaldi bat:

Beste guziak bildu ziren, baizik eta goroldioari hitzegiten erakutsi behar ziotela. Bizkitartean, erakusten hasi zirenean, gelditu denak muturrik omen ziren.

- ▶ Hitz bat lekuz aldaturik baita, dena ordenan idatz ezazu berriz eta azpimarra ezazu tokiz aldatua izan den hitza.

- ▶ Hona bi solasaldi. Nork ditu egiten?

- Jaten hasten ginen aldi guziz, "aitzina eta goxoago, aitzina eta goxoago", egun guzian ibili eta ibili, ez dugu deus ere jan.

artzainak?

ardiak?

belarrak?

- Ez zarete tonto txarrak, beste aldian "hemen berean goxo" erantzun eta han berean geldi zaitzte nahikoa jan arte.

artzainak?

ardiak?

belarrak?

- ▶ Sei hitz badituzu testu honetatik hartuak eta nahas-mahas emanak. Ezar itzazu ordena alfabetikoan.

goroldio ardi sasi artzain belar alhatu iluntze

- ▶ Animaliak, zuhaitzak, sasiak, belarrak goroldioari mintzatzen ikasten hasi zitzaizkion. Egizu marrazki bat horren irudikatzeko.